



## EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA. HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN EGOERA IPAR EUSKAL HERRIAN

**Titto Betbeder**

*Euskararen Erakunde Publikoko teknikaria*  
Helbide elektronikoa: [c.betbeder@mintzaira.fr](mailto:c.betbeder@mintzaira.fr)

### 1. HELDUENTZAKO EUSKARA IKASTEKO EGITURA EZBERDINEN AURKEZPENA

Iparraldean zenbait elkartek euskarazko ikastaroak proposatzen dituzte:

#### 1.1 AEK (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea)

AEK-k EAEn, Nafarroan, eta Ipar Euskal Herrian gau-eskolak federatzen ditu. Gau-eskola bakoitzak euskarako klaseak proposatzen ditu.

Iparraldean, 1980an sortua, AEK 1901eko legearen menpeko elkarte bat da Baionan kokatzen dena. 14 gau-eskola kudeatzen ditu Iparraldeko hiru probintzietan: 11 Lapurdin, 2 Nafar Beherean, 1 Zuberoan (gau-eskola horretan Zuberoako euskalkia irakasten da). Gau-eskola bakoitza elkarte bat da bere bulegoarekin. AEK-k langileak, gastu handiak, eta ikasmaterialak kudeatzen ditu bakoitzarentzat.

**Elkartearen helburu nagusiak:** Helduek euskara ikastea eta alfabetatzea, erabilpena sustatzea metodo berritzaileak erabiliz, hizkuntza praktikoa dela erakutsiz eta irakaskuntza kalitatezko bat proposatuz.

AEK-k urtero eramaten dituen jarduerak ondoko hauek dira:

- “Gau-eskoletan” euskarako ikastaroak
- Euskararen erabilera (enpresetan planak garatu), euskarari buruzko normalizazio plana
- Formakuntza Berezituen Ildoa (egiturei zuzendu ikastaroak)
- Ikastaldiak barnetegietan eta kanpo ikastaroak...

## **Angeluko Ikasleak**

1977an Angelun sortua, Angeluko Ikasleak elkarteak 1901eko legearen menpeko elkarte bat da. Helduei zuzendu euskararen irakaskuntza, profesionalek lagundurik, bai eta ere euskal kulturaren sostengua dira honen helburu nagusiak. Ikastaroak Angeluko herriko geletan ematen dira.

Angeluko Ikasleak elkarteak eraman ekintzak bi puntu hauen antolaketa oinarrituak dira:

- helduentzako euskarazko ikastaroak
- kultura ekintzak euskaraz: ateraldiak, hitzaldiak, ohiko bestak...

### **1.3 Maite Dugulako**

2004an sortua, MAITE DUGULAKO 1901eko legearen menpeko elkarte bat da. Helduei zuzendutako euskararen irakaskuntza da honen helburu. Bestalde, euskaraz mintzatzeko elkargune bat izateko xedea du, euskara eta euskal kultura sustengatu nahi duten guztiak elkartzuz.

Maite Dugulako elkarteak eraman ekintzak bi motatakoak dira:

1. Helduentzako euskarazko ikastaroak (batez ere ahozkoa hobetu nahi dutenentzat)
2. Antzerki ikastaroak euskaraz

### **1.4 Angeluko Ikastola (Kimua)**

2004an sortua, ama-ikastolako guraso talde bat elkartu da euskara ikaste-ko xedearekin. Helburu nagusia euskararen oinarriak ikastea da, seme-alabarekin hurbiltasun bat sortzeko. Ikastaroak astean behin eta oren batekoak dira. Bi guraso ohik eskaintzen dituzte, bolondresak direnak. Ikastaroak dohainik dira.

### **1.5 CEL (Baionako hizkuntzen ikasketa zentroa)**

Baionako CELak bere bulegoak Baionako Komertzio eta industria Ganbaran ditu. Frantzia guztian zentro horiek aurkitzen dira. Gehienetan Europako hizkuntzak irakatsiak dira; Baionakoan, ingelesa, espainola eta euskarako ikastaroak proposatzen dituzte.

---

*Iparaldean, 1980an sortua, AEK 1901eko legearen menpeko elkarte bat da Baionan kokatzen dena. 14 gau-eskola kudeatzen ditu Iparaldeko hiru probintzietan: 11 Lapurdin, 2 Nafar Beherean, 1 Zuberoan (gau-eskola horretan Zuberoako euskalkia irakasten da). Gau-eskola bakoitza elkarte bat da bere bulegoarekin. AEK-k langileak, gastu handiak, eta ikasmaterialak kudeatzen ditu bakoitzarentzat.*

**Angeluko Ikastola  
(Kimua)**


*2004an sortua, ama-  
ikastolako guraso talde  
bat elkartu da euskara  
ikasteko xedearekin.*

*Helburu nagusia  
euskararen oinarriak  
ikastea da, seme-  
alabarekin hurbiltasun  
bat sortzeko. Ikastaroak  
astean behin eta oren  
batekoak dira. Bi guraso  
ohik eskaintzen dituzte,  
bolondresak direnak.  
Ikastaroak dohainik dira.*

2004. urtetik euskarazko ikastaroak 2 modutan proposatuak dira:

- gutxienez 6 ikasleko ikastaro erdi-trinkoak
- ikastaro partikularrak

2006ko sartzean Baionako CEL ikastegian ez du nehork izenik eman ez ikastaroetan eta ez eta ere ikastaro partikularretan.



## **2. 2007-2010 EPEALDIKO HIZKUNTZA POLITIKA PROIEKTUA**

### **2.1 Helburua**

2006ko abenduan, Euskararen Erakunde Publikoko Administrazio Kontseiluak Hizkuntza Politika Proiektua aho batez onartu du. Lehen aldikotz, bizi sozialeko arlo guztiak kontuan hartzen dituen "hizkuntza politika" bat finkatzen da Ipar Euskal Herriarentzat. Dokumentu hori Ipar Euskal Herriko instituzioen oinarria izango da eta haien jarduera zuzenduko du heldu diren urteentzat.

Hizkuntza politika proiektuak hamaika erronka zehazten ditu; horietarik, helduen euskalduntzea.

Azken inkesta soziolinguistikoen arabera, euskararen transmititzeko gogoaz azkarra da, eta baliteke familiako transmisio berpizte hastapen bat gertatzea belaunaldi gazteen baitan, guraso izateko adina dutenen baitan. Halere, hizkuntzaren transmititzeko gaitasuna ez doa gogo horrekin batera: hizkuntza haurrei irakasteko gai diren elebidun gazteak gero eta gutxiago dira.

Hizkuntza politika proiektuak hizkuntza transmisio eginkizun horretarako familia berriz mobilizatu nahi badu, orduan guraso direnei edo hala izan nahi dutenei oraindanik hizkuntza ikasi edo hobetzeko aukera eskaini behar die. Molde berean, euskarazko harrera eskaintzen duten lehen haurtzaroko profesionalen sare baten eraikitzeke, beren jarduera euskaraz eraman dezaketen langileak behar dira. Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren egituratzeko eta garatzeko, irakasleek, euskara menperatzeaz gain, beren sailean hizkuntza horretan irakasteko ahalmena ukan behar dute.

Era berean, hizkuntza politika proiektuak euskararen gizarte-erabilpena sustatu nahi badu, euskal komunikabide edo aisialdi aktibitate eskaintza erakargarri baten bidez hizkuntza biziarazi behar du. Horretarako hitzun oso batzuen beharra du, alor bakoitzean. Hauek hizkuntza maila ona duten euskaldunak, eta beren lan-jardueran euskaraz mintzatzeko gogoia dutenak dira.

Orduan, gorago zehazturiko erronka bakoitzean arrakasta lortzeko, eremu ezberdinetan arituko diren pertsonen hizkuntza formakuntza edo hobekuntza beharrezkoa da. Horregatik, hizkuntza politika proiektuak erabilpen pribatu eta profesionalen sustatzeko, helduei euskara ikaste-ko eta hobetzeko aukera eskaintzeko xedea finkatzen du erronka gisa.

## 2.2 Hizkuntza politika proiektuaren orientabide nagusiak, "helduen euskalduntzeko" alorrean

Hizkuntza politika proiektuaren beste alorretan bezala, erronka bakoitzean definitzeko hiru helburu bilatuak izan dira:

- eskaintza zabaldu, osatu eta azkartu,
- baliabideak eta tresnak sortu, egokitu eta osatu,
- hitzun osoak sortzeko helburua betetzeko jardunbidea sortu, egokitu eta osatu.

Ondorioz, hiru orientabide nagusiak finkatuak dira:

### **1/ Helduei eman, lurralde osoan, euskararen ikasteko eta hobetzeko parada:**

- 1.1. Euskaltegien eskaintza garatu eta egituratu.
- 1.2. Irakaskuntza sistema osagarriak indartu eta garatu.

### **2/ Irakasleei behar bezala lan egiteko gaitasunak eta tresnak eman:**

- 2.1. Irakasleen formakuntza azkartu.
- 2.2. Ikasmateriala egokitu eta osatu.
- 2.3. Teknologia berriek irakaskuntzarako zabaltzen dituzten bideetatik baliatu.

### **3/ Euskararen menperatze osoa helburu duen irakaskuntza sistema bati buruz joan:**

---

*2006ko abenduan, Euskararen Erakunde Publikoko Administrazio Kontseiluak Hizkuntza Politika Proiektua aho batez onartu du. Lehen aldikotz, bizi sozialeko arlo guztiak kontuan hartzen dituen "hizkuntza politika" bat finkatzen da Ipar Euskal Herriarentzat. Dokumentu hori Ipar Euskal Herriko instituzioen oinarria izango da eta haien jarduera zuzenduko du heldu diren urteentzat.*

**Hizkuntza politika proiektuak hizkuntza transmisio eginkizun horretarako familia berriz mobilizatu nahi badu, orduan guraso direnei edo hala izan nahi dutenei oraindantik hizkuntza ikasi edo hobetzeko aukera eskaini behar die. Molde berean, euskarazko harrera eskaintzen duten lehen haurtzaroko profesionalen sare baten eraikitzeko, beren jarduera euskaraz eraman dezaketen langileak behar dira. Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren egituratzeko eta garatzeko, irakasleek, euskara menperatzeaz gain, beren sailean hizkuntza horretan irakasteko ahalmena ukan behar dute.**

- 3.1. Mailaz-maila ikas prozesu osoa segurtatzen duen erreferentziarako irakaskuntza eredu bati buruz joan.
- 3.2. Ikas prozesu intentsiboak eta laburrak lehenetsi.
- 3.3. Xede berdinak dituzten ikasle taldeak sortu, haur eta gazteentzat estrategikoak diren alorrak lehenetsiz.
- 3.4. Kurtsoetarik kanpoko euskarazko jarduerak garatu, erabilpenaren bidez euskara hobetzeko helburuarekin.

Orientabideka hainbat jarduera eta egintza aurkeztuak dira. Adibidez:

**1/ Helduei eman, lurralde osoan, euskararen ikasteko eta hobetzeko aukera.**

**1.1 Euskaltegien eskaintza garatu eta egituratu:**

- Oraingo egoeratik abiatuz, euskaltegien eskaintza lurralde osoan eskuragarri jar lezakeen sare bati buruz joan.

**1.2 Irakaskuntza sistema osagarriak indartu eta garatu:**

- Balia-guneak eta uneak indartu eta garatu.
  - Euskaltegietao ikasleen eta berezko euskaldunen arteko zubiak sortu:
    - Mintzalaguna eta beste moldetako esperientziak zabaldu ;
    - Euskaltegien eta zahar-etxeen artean mintzapraktika uneak sortu.
  - Mintzapraktika uneak eta jarduerak antolatu, euskaraz bizitzeko helburuarekin :
    - Xede berdinak dituzten jendek osatu talde naturalei zuzenduko diren mintzapraktika bereziak antolatu, talde bakoitzak dituen komunikazio beharrei egokituz (guraso gazteak, familiak, haurtzaindegietako langileak, ikastetxeetako, herriko etxeetako eta beste erakundeetako langileak...);
    - Mintzapraktika une idekiak antolatu, aisialdiari eta plazerrari lotuak (afariak, poteoak, mendi ibilaldiak, ateraldi kulturalak, euskarazko kirol saioak...);
    - Interneteko mintzapraktika guneak sortu eta biziari.
- Euskal hedabideak, hizkuntzaren irakaskuntza prozesuarentzat lagungarri izaten sustengatu .
- Autoformakuntza eta lantze sistema pertsonalak indartu, egokitu eta garatu
  - Internet bidezko autoformakuntza tresna erakargarriak eskaini ; gutun bidezko formakuntza eskaintza bat plantan jarri ;
  - hizkuntzaren hartze-denbora emendatzeko tresna pertsonalak eskaini (ad. (KDak, Internet bidezko euskarazko emankizunak, MP3 irakurgailu ibilkarien prestaketa sistema...)

Orientabide bakoitzarentzat, egintzak zehaztuak dira; orain doakio Euskararen Erakunde Publikoari lan egitaraua hori gauzatzea, hala egitura berak bultzatuko dituen ekintza batzuen bidez, hala arlo honetan jarduten diren eragileak lagunduz eta sustengatuz.■